

Asto berezia

1995eko udaran, jaio nintzen ni. Beraz 12 urte ditut. Nire bizitzako pasadizo bat kontatuko dizuet orain. Ni Goiatzeko baserri batean bizi izan nintzen. Baina jaio, belardi lasai batean. Ni jaiotakoan, alboan nituen ama eta aita. Nire ama, marroia zen, oin motzak eta buztan luzearekin, aita, grisa, oin motzekin eta buztan motzarekin. Ni ordea, urdina nintzen, oin motzak, buztan iletsua eta itsusia. Ia inork ez ninduen ongi tratatzen, gaizki ikusia nintzen beste senitarteko guztientzat, eta babesten ninduten bakarrak nire gurasoak eta jabe leiala ziren. Nire jabeak, Joan Joxe izena zuen, oin motzak eta okerrak zituen eta oso txikia. 75 urte bete berriak zituen. Joan Joxek zuen gauzarik politena, bihotz ona zen. Joan Joxe, harri eta zur geratzen zen ni bakarrik ikusita. Gurasoak larreetara joaten ziren lanera eta ni orduan, bakarrik eratzen nintzen. Joan Joxe eta ni mendiko haran garbiko uretan bainatzera joaten ginen. Hura zen bion arteko sekreturik handiena, beste inork ez baitzekien. Egun guztian zehar batera ibiltzen ginen. Berarentzat ni, oso berezia nintzen eta bera ere halakoxea zen niretzat. Joan Joxe bakarrik bizi zen, alarguna baitzen. 5 urte lehenago hil zitzaion bere emaztea, asko maitatua eta Maria izena zuena. Niri iruditzen zitzaidan, alboan, zaintzeko norbait behar zuela, eta ni nitzela egokiena. Herrira erosketak egitera jaisten zenean, ni ere berarekin jaisten nintzen. Senitarteko guztiak, inbidiak jota zeuden, maiteena nintzelako. Zirikatu eta jo egiten ninduten, eta gurasoek ezin zituzten denak geratu. Behin, gurasoak sorroan zeuden bitartean, jipoitu egin ninduten, eta oso larri jarri nintzen. Joan Joxe nire bila etorri zenean, harri eta zur geratu zen eta berehala, baserrian zituen gauza guztiekin, baserri barrura eraman ninduen, ahal zuen bezala. Nik ez nuen nahi Joan Joxe horrenbeste nekatzerik. Biok lasaitutakoan, Joan Joxek albaitariari deitu zion eta hark, ezin zuela joan esan zion. Orduan, Joan Joxek, gauza guztiak zeuden bezala utzi eta korrika herrira jaitsi zen. Nik egin ez nekien zertara joan zen ere baina banekien egiten

ari zena ondo egiten ari zela. Konfiantza osoa nuen beragan. 10 minuturako etorri zen, baina niri oso luzea egin zitzaidan. Etorri zenean, eskuetan saski bat zuen eta saski haren barruan, 20 benda, 2 ukendu pote eta belar polit batzuk. Zer zen galdetu nion eta herriko lagun batek utzitako osagaiak zirela erantzun zidan. Ukendu, belar eta benda haiek jarri eta asko lasaitu nintzen. Baina, Joan Joxe hala ere ez zegoan lasai, ez zuen nahi nik minik edukitzerik. Orduan, berriz ere albaiari deitu zion. Oraingoan zegituan etorriko zela erantzun zion, eta halaxe egin zuen. Segituan etorri, eta, lehen begiradarekin esan zuen golpe gogorak nituela eta hoberena sakrifikatzea izango zela. Nik hori entzun nuenean, kegar malkoak erori zitzaizkidan, ez bainengoen seduru Joan Joxek zer esango zuen. Baina nik uste baino lehenago esan zion ezezko garbia eta, ostikadaka bota zuen baseritik.

Joan Joxek, oso ondo zaindu nahi izan ninduen. Egunero bezala poliki-poliki mendiko haraneko ur garbitan bainatzera joan ginen. Behin Joan Joxe ertz batera joan zen pixa egitera eta haren ondoan putzu eder bat ikusi zuen. Barrura sartu zen eta nik ez nekien zertan zebilen. Bat-batean zurrumbilo batek irentsi behar zuela eta oihuka hasi zen laguntza eske. Orduan, ez zidan denborarik ematen herrira jaitsita abisua emateko eta bere albora joan eta buztanetik heltzekokeinua egin nion. Hala egin eta ahal nuen bezala atera nuen. Nik okerrera egin nuen, nekatuagoa bainengoen eta Joan Joxe segituan konturatu zen.

Orduan, karteltxo bat ikusi nuen, erdi tapatua, zikina eta hostoz betea. Honela zion: "Izaki urdinen bat sartzen bada putzu honetan, zoriona izango du eta desio bat eskatzeko aukera, desio hori bete egingo da".

Orduan, korrika sartu nintzen. Desio hau eskatu nuen; inoiz ez banantzea Joan Joxerengandiketa azkar sendatzea. Egun gutxi barru, irribarrea zen nagusi nire aurpegian, baita Joan Joxerenean ere.

Egunero bezala, mendiko haraneko uretan bainatzera joaten ginen. Oso gustura nengoen. Joan Joxek, lagun polit eta berezi bat ekarri zidan, ni pozik ibiltzeko. Laguntxo hau, emea zen, oin motzekin, buztan ederrarekin eta kolore bereziarekin, laranja kolorea. Kolorea izan zen liluratu ninduen gauza. Aldiz, bere aurpegian, tristura zen nagusi. Denek bakarrik uzten zutela esan zidan. Orduan, negar zotinka hasi zen. Nik, beretaz maiteminduta nengoela esan nion. Orduantxe, irribarre goxo bat egin zidan.

Nire gurasoak eta Joan Joxe oso pozik zeuden ni horrela ikusita.

2 urte geroago, ama gaixo jarri zen, ahal genuen guztia egin genuen baina, ezin izan zuten bizirik irten. Aita, depresioan sartu zitzaigun. Handik hilabete pare batera, aita hil zen, hura, depresioak jota.

Urtebete nahikoa izan zen, negarrak betiko utzi eta nire bizitzarekin jarraitzeko. Nire laguntxoa eta ni haur baten esperoan geunden.

Handik hilabete batzuetara jaio zen. Baina, hura, grisa zen, nire aita bezalakoa.

Nire laguntxoa eta ni harri eta zur geratu ginen. Baina, alde batetik oso pozik geunden gu baikinengatik, asto berezi bakarrak.

Senitarteko guztiekin oso ongi moldatzen nintzen, barkamena eskatu baitzidaten, eta azkenean familia zorientzua osatu genuen, Joan Joxe eta guzti. Eta beti eramaten genituen nire gurasoak oroitzpenean.

Konturatu al zarete asto berezi bat naizela?

Hala da ba, asto berezi bat naiz.